

# 1998-1999 Sakoneko bakerantz

• PAULO AGIRREBALTZATEGI •

IDAZLEA

**E**dozein urtek utzi ohi dizkio hurrengoari beltzilunak hurrengoak eroan beharreko zamak eta koloreargitsuak, esperantzari irekiak. 1998-ak ere bietakoak utzi dizkio 1999-ari: Munduan, Europan eta Euskal Herrian. Gure Herritik ezin ditugu gogoan hartu. gabe utzi mundu zabalean eta inguruanago gertaturikoak; ezta gertatuko direnak ere, horiek jasan beharko ditugulako, nahiz horietan geure eragina izan dezakegulako.

## Mundukoak eta ingurukoak gogoratzuz

Urruneko ekialdetik iritsi zitzaizkigun 1998-ean uholde «unibertsalaren» berriak, Txinako unibertso handian gertatzen denak ia beti baitu gertakari unibertsalaren oihartzuna; baina oihartzun hutsean gelditu ote zitzaizkigun nago. Urruneko mendebaldeko Ertamerikako herrialde. txiki pobreetatik iritsi zitzaigun berrikiago haizete zurrunbilotsuek eragindako hondamendien zaplasteko latza; oihartzunaz gain, erantzuna ere zabala izan zuen horrek Europako herrialdeotan, herrien arteko elkartasunaren ederra erakutsiz, baina baita horren- mugak salatuz ere, Hirugarren Munduko Lehener Mundukoekin zorretan jarraitu beharko dutela eta (!?). Uholde eta «aizeolde» jkaragarrien gainetik, ordea, eguzkiak argitzen eta berotzen, jarraitzen du Ekialdetik - Mendebaldera.

Sahara Mendebaldekoaren autode-terminazio-prozesuak labirinto amairik gabekoan irauten duela ikusi behar izan dugu 1998 honetan ere; aldi berean ordea, Kanaken independentziarako bidea tinko abiatu deladirudi. Tartean Iraken bonbardaketak ondo erakutsi digu EEBBek munduko ugazaba inperiala eta polizia azkarrak izan nahi dutela, nazioarteko erakunde guztien gainetik; nabarmen utzi aldi berean Europar Batasunak ez duela inolako batasunik nazioarteko politikan. Uste izatekoa da bide horretatik, hasi berria den urte berriarekin indarrean sartuko den Euroak barne merkataritza sendotzea eta kanpokoari buruz indartu eta defenditzea duela helburu nagusia, edo bakarra.

Kosovo gerrak ipini digu begi aurrean 1998 honetan, Serbiak Herri hori ezarria zion zapalkuntza latza, eta ondorioz pizturiko gatazka larriaren gordin-

tasuna. Baina urte honek berak erakutsi digu negoziazioen bidez Ipar Irlandan irekitako bide berriaren, argia, gatazka-armatu a gainditzeko eta bakea eraikitzeke; Euskal Herriaren-tzako zuzentasunezko konponbide politikoa bilatzeko eta sakoneko bakea lortzeko eredu bihurtu dena, gainera; ildo horretatik eratu zen Irlandako Foroa, Lizarra-Garaziko Agiria ekarri zuena.

## 1998: Lizarraren G(a)razia

Euskal Herrian oso zabalduta da Lizarra. Eta bedeinkatua da zuhaitz horren gerizpea ardientzat, mendiko borden inguruan; bedeinkatua horren hostajea etxe-ko ganaduentzat, udako lehortean belar berdea urritzen denean; eta bedeinkatuz beteak baserriarentzat horren adaskak, sarrerako atean etxeoen babesgarri eta gerizagarri ipiniak. Lizarrak badu grazia.

Monzon zenak Maltzagan ipini ohi zuen euskal abertzaleentzako topagunea; baina Maltzaga eta Ermua oso hurbil daude, ia aurrez aurre. Horixe nahiko zuketzen agian Ermuako Forokoek, Irlandako Foroa, Maltzagan biltzea, Eibarko hestugunean inkomunikazio-harresia eraiki eta bi Plazak gerra-gotorleku bihurtzeko. Baina, Irlandako Foroak Tierra Estella zabaleko Lizarra aukeratu zuen plaza irekitzat, bakearen bide berria irekitzen haste-ko. Handik egun gutxira Donibane Garazin berretsitako Lizarrako Agiria sendoturik eta bermaturik gertatu zen, tartean ETak sueten mugagabea aldarrikatu zuelarik. Lizarrako Agiriak bazuen geriza, bazuen Garazi

## 1998: Lizarraren ga(ra)zi behar

Udaberrian loratzen da Lizarra, eta horren fruituak udazkenean heltzen dira, baina sarritan zuhaitzetan irauten dute negua iragan arte, hurrengo udaberrian barreiatuz (Enziklopedia). Lizarra-Garazin 1998ko udazkena heldu zen bake-lizarraren lehen fruitua

hainbat eranunde politiko eta sozialen eskuetan Fruitu hori, ordea, Euskal Herri eta Gizarte osora hedatu beharrean dago -zein udaberriren zain?-. Dena dela, landare berria garatuz joateko

urtea izango da hasi iberrri dugun urtea, 1999. urtea.

Horren garapen osoa, berriz, ez da lortuko etá Euskal Herriaren sakoneko bakea ez da helduko indar armatuek gatazka armatua uztearekin edota presoak Euskal Herriratzearrekin ezta horiek amnistiaren bidez kaleratze hutsarekin ere, Eremu juridiko politikora (autodeterminazioa eremu laboral eta sindikalera (lan-harremantzen barrutia), kulturaren eremura (Euskal Unibertsitatea, komunikabideak, etab.), hizkuntzaren eremura (Euskararen

Unibertsoa), kirolen eremura (Euskal selekzioak) horietara eta bestetara hedatu eta zabaltzean helduko da benetan sakoneko bakea.

Adar ugari ditu Euskal Bakearen Lizarrak. Guztietara beharko da zabalduta eta indarsozial guztien artean garatu Lizarra-Garaziko Agiria Loraldiz loraldi, hostoaldiz hostoaldi eta fruitu-aldiz fruitu-aldiz gara(ra)zi beharko da Bakearen Arbola.. Horretarako udaberriak, udak, udazkenak eta neguak beharko, dira agian. Baina hor dago 1998. urteak Herri honi utzi dion, itxaropen berebizikoa.

Adar instituzionalean (Eusko Jaurlaritza berria), adar, politikoan, (datorren urtarrilaren 9ko manifestaldia (ELA, LAB eta beste zenbait sindikaturen arteko ekintza bateratuak) hasia da ondorioak ematen Lizarran adosturiko aldarrikapena.

Eta beste gertakari pozgarri eta adierazgarri bat zinez. Euskaren aldeko Mugimendu Soziala aitzindari eta eragile gertatzen ari da, Lizarra Garaziko Agiriaren bidez irekitako dinamika politiko-sozial berrian; Euskararen Unibertsoa izeneko mugimenduak aurrea hartu zion hari; eta haren ondorioz eratu den Euskararen Gizarte Erakunde Kontseilua hark bateraturiko sinaduren multzo irekia gainditzen ari da dagoeneko, Bai Euskarari npainar'a eta XXI. Mendeko Mordiora dagoeneko erakarri dituen indar politiko, sindikal, sozial eta kulturalekin.


1999 urtera eta XXI. mendera begira, Euskararen berreskurapena eta normalakuntza osoa izan daitezke Euskal Herriaren sakoneko baketzaren adierazle eta eragile.



*Adar ugari diru  
Euskal Bakearen  
Lizarrak. Guztietara  
beharko da zabalduta  
eta indar sozial  
guztien artean garatu  
Lizarra-Garaziko  
Agiria*



*Euskal Herrian oso  
zabalduta da Lizarra.  
Eta bedeinkatua da  
zuhaitz horren  
gerizpea ardientzat  
mendiko borden  
inguruan, Lizarrak  
badu grazia.*



KIRMEN URIBE

## Amaitzear zegoen gerra

**H**aurtzaroaz mintzo zait gaurkoan Gianni, bigarren mundu gerrako garaian biziizandakoak.

Florentziakounibertsitate an erakusten ditu eskolak, historia garaikideaz, eta ia egunero egokitzen zait jantokian. Partisanoei buruz galdetu diot nik, ez du bainanire itaunean arreta handirik jarri. Jaioterriko pasarte bat etorri zait gogora -diost Giannik berak karrera aldatuz, Gerra garal hartako umeontzat mamurik izugarrienak mongoliar soldadua ziren -gerora irakurri izan dut hasieran sobietar armadakoak baziren ere alemaniarrek preso hartu eta fronteko abangoardian joatera behartzen zituztela, populazio iibilarengan beldurra eta ikara sortzeko:

itxaropenik ezearn krudelak ziren oso. Gizon motzak ziren benetan eta, gogoan dut oraindik, moldagaitzak. bizi\_kletaz ibiltzeko. Gerra bukatzear zegoela abandonatu.e in zituzten alemaniarrek., atzeraegitean.- Dena dela, herrian zeuden mongoliarrak kamioi baten jabe egin ziren, hala edo. bestela. Eta biharamoneko mar~ txari adoretz ekin baino lehen apirileko gau . epela profitatzea,erabaki zuten: izan ere ez zen erraz kontinentean barrena sorterrira itzultzea, ezinezkoa ez esatearren, galtzaileekiko jopu eta irabazleekiko traidore baitziren. Han nonbait ebatsiriko likore botiletatik dzanga egiten eta kantu ulertezinak kantatzen entzun genjtuen gau osoan zehar. Goizalban,,kamioia abantean jarri, atzekaldera igo eta horren ostean Po ibaira amilarazi zuten.